



Portillo txaleta (Karrantza Harana / Valle de Carranza)

Portillo txaleta indianoen arkitekturaren adibidea da; izan ere, horren jabea izandako Luis Portillo Rodrigo Kuban dirudun bihurturiko karrantzarra izan zen, kafea txigortzeko negozioari esker. Mende hasieran Bizkaia itzuli eta Bilbon bizitzen gelditu zen, Errekalde Etorbideko 32. zenbakian; etxe horrek Montero etxearekin erdibitzailea sortzen zuen (Errekalde Etorbideko 34. zenbakia), baina gaur egun desagertuta dago. 1901ean landetxea erosi zuen Karrantzan, berori berritu eta uda bertan igarotzeko asmoz. Proiektua Jean Batiste Darroquy arkitektoari agindu zion. Ez dakigu zehatz noiz eraiki zuen, baina 1904aren inguruan izango zen, urte horretan Ipar Euskal Herriko arkitekto hori Karrantzan lanean ari baitzen, Hernáiz txaleta eraikitzen. Darroquy aukeratzeak eragin handia izan zuen Hernáiz txaleta egiteko orduan; baina, halaber, kontuan hartu behar da Portillok ondo ezagutzen zuela arkitekto hori, berorrek egindako etxeetariko baten ondoan bizi baitzen.

Darroquy, lehen esan dugun bezala, jatorriz Ipar Euskal Herrikoa zen; 1890-1900 bitartean Foru Jauregiko obrak egitera iritsi zen Bizkaia, Luis Aladren arkitektoaren estudioak kontrataturik (eraikin horretako lehiaketaren irabazlea). Ez dugu Darroquy arkitektoaren lanbide osoaren berri, Ipar Euskal Herrian bizitzean ezin baitzuen Bizkaian lanik egin. Lanak sinatu bai baina ez zuen arkitekto izaerarik zehazten; gainera, udal lizentzietan ez zuen inoiz egiten, beste profesional batek egiten baitzuen; esate baterako, Portugaleteko Chávarri txaletaren kasuan, bertan lizentziako planoak Atanasio Anduizak sinatzen baitzuten. Darroquy arkitektoak Euskal Autonomia Erkidegoko arkitekturaren eragin erabakigarria izan zuen, modernismoa sartu baitzuen, besteak beste Campos antzokia (1902) eta Montero etxea (1902) lanen bitartez. Bi horiek euren ingurua gainditzen duten adibide bikainak dira.

Portillo txaleta eraikuntza konplexua izan zen: sarbidea hegoaldeko fatxadaren turtziar baserri etzana berritzearen ondoriozko oinetik oinarrituz, sarbidea mendebaldean (biderantz) zuen etxe burgesa egin behar baitzen, baina antzinako fatxada nagusia kontserbatuz. Darroquyren soluzioa lehengo eraikina errespetatzea izan zen, mendebaldeko eta ekialdeko fatxadak izan ezik, horietan bi gorputz berri eraitsi baitzuten, eskaturiko programari egokitzeko. Soluzio horrekin ez zen konposizioaren batasunik lortzen.

Estiloari dagokionez, berrikuntza horretan hiru erregistro desberdin erabili ziren: mendebaldeko nahiz iparraldeko fatxadetan, eklektizismo klasizista; iparraldekoan frantziar jatorriko euskal estilo berria; eta ekialdekoan, baldintzatuena, errespetatu egin behar baitzuten turtziar baserriaren muturrak; azken horretan zurezko lan konplexua egin eta horrek erreferentziak ditu bai Normandiar estilo berrian eta bai frantziar jatorriko euskal arkitektura berrian. Txaletaren ezaugarri aipagarritzat, hegaldi handiko estalkia duela esan daiteke; hori harburu ikusgarrietan euskarriturik dago, txarren orientaturik dauden fatxadak eguraldiaren gorabeheretatik babesteko. Kromatismoak (krema eta gorria) frantziar eraginpeko arkitekturara daramatza.

Darroquy arkitektoak egindako berrikuntzak hobeto ulertzen dira egoitzazko programatik begiratuta; egin-eginean ere, ekialdeko gorputza komunak kokatzeko erabiltzen da; gainera, frantziar erako soluzioa dauka, komunok eskailburuan kokatzen baititu; ekialdekoa, berriz, beheko solairuko sarbidea kokatzeko da, eta gela nagusia lehenengo solairuan dago. Egoitzazko programa hiru mailatan antolatzen da: harremanetarako gelak behe solairuan eta gela pribatuak gainerako bi solairuetan, lehen solairua jabeentzat eta ganbara zerbitzuko langileentzat. Etxebizitza erdiko hormartea zeharkatzen duen atondo handi batean oinarrituz egituratzen da; beheko solairuan saloia, egongela, bulegoa, logela eta tximiniadun jantokia dauka.

Txaleta diseinu bikaineko hezi batekin itxita dago; hezi horretan aipagarria da itxura modernistako burdinsarea eta Karrantzako kare-harrizko zutabeak.

Testua: Gorka Pérez de la Peña.



Portillo txaleta

Karrantza. (*La Tejera, 1*).

Nola heldu:

Haraneko administrazio zentroa den Concha auzotik BI-4267 errepidea hartu eta La Tejera auzora iritsiko gara. Errepidearen ezkerrean dago Portillo etxea.

Bisitak egiteko ordutegia:

Jabetza pribatukoa da.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(*Karrantza*)

- Ahedoko multzoa (eliza, plaza eta artzapezpiku ikastetxea).
- Villapaternako jauregia eta ermita. (*La Lama*)
- Udaletxea. (*Concha*)
- Hernáiz txaleta. (*Concha*)
- San Bartolomé eliza. (*Aldeacueva auzoa*)
- San Juan de Pando eliza. (*Pando auzoa*)